

ASTELEHENEAN GAI XO

ZER DA?

Programa honek ikasleen kezka bideei erantzun nahi die haiek hobeto sentitzeko eta gero irakasleekin alde akaldemikoari berari ekiteko xedez. Helburu du hezkuntza-lana sostengatzea ikasleen garapen pertsonalari begira, gazteen euren parte-hartze aktiboa bultzatzen duelarik.

Programak nahi du gazteek gogoeta egitea eta informazio egokia jasotzea hurrengo larunbatean zer egin erabaki aurretik. Beste hitzetan, beharrezko informazioa eta gogoeta bultzatu nahi ditugu gazteek erabakiak hartu ahal izateko edota behin hura hartuta ondorioei aurre egiteko eta atzera egiteko. Azken batean, gazteek erantzukizunez jokatzeko da.

NORENTZAT?

Portugaleteko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako 3. mailako ikasleak, Ikasgela Osagarriko ikasleak eta Portugaleteko Oinarrizko lanbide heziketako udal institutuko ikasleak.

HELBURUAK?

- Ikasgelan drogen gaineko gogoeta-gunea sortzea. Halaber, nerabeentzat arriskutsuak diren beste alderdi batzuei eta haien kezkabideei buruz hausnartzea.
- Ikasleei erkaketa bat erakustea neurriz eta neurririk gabe nolakoa izan daitekeen aisialdia.
- Arbela edo ikasgela une batzuetan, behinik behin, ispilu bihurtzea non ikasleek taldeka jokaerak, kezkak eta asteburuko bizikizunak aztertuko baitituzte.
- Proiektuko ikasle parte-hartzaileei aukera ematea gogoeta kritikoa egiteko aisialdiko bizipenez edo oraindik bizitzeko dutenaz.
- Gazte parte-hartzaileek parte-hartze aktiboa lortzea, proiektua garatzeko orduan.
- Proiektua pizgarri gisara sustatzea ikasle parte-hartzaileak ezagutza akademikoak bereganatzeko orduan oztupoak jartzen dizkioten bizipenez gogoeta egin dezan.
- Ikasle parte-hartzaileei aukera ematea taldeka eta ikasgela barruan bere kezkez eta ikastegitik kanpoko emozioez gogoeta eta azterketa egiteko.
- Ikastetxeari laguntzea ikasleen kezkak konpontzen eta ikasgelako gatazkak konpontzen.

NOIZ?

Martxo edo apirilean, bi astelehenetan, elkarren jarraian. Saio biek bina ordu irauten dute.

NOLA?

Programa ikastetxean egiten da, ikasgeletan bertan. Lantegia dinamiko eta arina da. Lan akademikoa ez oztopatzearen, tutoreak tutoretza-ordu batzuk ematen ditu. Bi bitartekari gaztek gidatzen dituzte saioak.

NON?

Portugaleteko Oinarrizko lanbide heziketako udal institutuko ikasgeletan, Ikasgela Osagarrian eta Portugaleteko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako 3. mailako ikasgeletan.

Ikastetxeek berek egin behar dute eskaria.